


ISEI - IVEI

**T6. ETENGABEKO IKASKUNTZAKO
PARTAIDETZA**





ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Edizioa: 2019ko maiatza

© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

LAN TALDEA

Araceli de Francisco

Inmaculada Tambo

M^a Paz Martínez

KOORDINATZAILEA

M^a Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Eduardo Ubieta



Sarrera	4
T6.1 taula eta grafikoa: Hezkuntza edo prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.	6
T6.2 taula: Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera autonomia erkidegoetan.	7
T6.2 grafikoa: Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa autonomia erkidegoetan. 2010 eta 2018 urteak.	8
T6.3. taula eta grafikoa: Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa autonomia erkidegoetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2018 urtea.	9
T6.4 taula: Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera.	10
T6.4 grafikoa: Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. 2010 eta 2018urteak.	11
T6.5 taula: Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. 2018. urtea.	12
T6.5 grafikoa: Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. 2018. urtea.	13



INKESTAREN AURREKO LAU ASTEETAN PRESTAKUNTZA EDO HEZKUNTZA-JARDUERETAN¹ PARTE HARTU DUEN 25-64 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN EHUNEKOA.

Europar Batasunaren helburua 2020. urterako: Europar Batasunean prestakuntza iraunkorreko partaidetza-maila batez beste lan egiteko adinean (25-64 urte) dagoen biztanleriaren % 15era gutxienez heltzea.

Bizitzako aldi jakin bati lotutako –gehienetan gaztaroari mugatutako– prestakuntzaren kontzeptuak lekua utzi dio bizitza osoan zehar gauzatzen den prestakuntzaren kontzeptu zabalagoari.

Europako Batzordeak 2000. urtetik aurrera helburutzat hartu zuen ikaskuntza iraunkorreko partaidetza handitzea. Honela definitu zuen ikaskuntza iraunkorra: “bizitzan zehar norberaren, hiritarren, gizartearen eta enpleguaren ikuspuntutik ezagupenak hobetzeko asmoz gauzatzen den edozein ikaskuntza-jarduera” (Batzordearen jakinarazpena: “Etengabeko ikaskuntzako europar gune bat errealitate bihurtu”, 2001).

2018an, Euskadin 25 eta 64 urte arteko biztanleriaren % 12,5 ari zen ikasketa motaren bat edo prestakuntza ikastaroren bat egiten inkesta egin aurreko lau asteetan. Sexuaren arabera, gehiago ziren prestakuntza jardueretan parte hartzen ari ziren emakumeak (% 13,8) gizonak baino (% 11,5).

Euskadiko batez besteko datua, 2005-2018 aldian, % 13,1ekoa da. 2016an % 11,7koa izan zen eta 2012an % 13,9koa, eta tarte horretan ibili da beti. Hau da, nahiko egonkor mantendu da. Hori dela eta, pentsa dezakegu zaila izango dela 2020 urterako helburu gisa jarritako % 15era iristea. 2005. urtetik (% 12,9) 2018.era (% 12,7) izandako bilakaerak 2 hamarren egin du behera. Aldi horretan guztian, emakumeek, batez beste, gizonak baino 3 puntu gehiago hartu dute parte prestakuntza jardueretan.

Espanian, 2005 (% 10,8) eta 2018 (% 10,5) artean 3 hamarren egin du behera. Parte-hartze handieneko ehunekoa izan duen urtea 2013.a izan zen (% 11,4) eta txikienekoa, berriz, 2016.a. 2018an, ehuneko altueneko komunitateak honako hauek dira: Melilla % 14,3, Euskadi % 12,7 eta Valentzia % 12,5. Ehuneko baxueneko komunitateak, berriz: Asturias % 8,6, Katalunia % 8,8 eta Andaluzia % 9,0.

2018an, prestakuntza-jardueretan parte hartutako emakumeen ehunekoa, batez beste, 2 puntu handiagoa da gizonena baino Komunitate guztietan.

Emakumeen eta gizonen artean alde handiena duten komunitateak, 2018an honako hauek dira: Nafarroa, 4,3 puntu, eta Errioxa eta Melilla, biak 4,0 puntu gehiago inkesta egin aurreko lau asteetan prestakuntza jardueretan emakumeen parte-hartzeari dagokionez. Melillako emakumeak (% 16,4) 2018an 2020rako ezarritako helburuaren

¹ Adierazle honek aldaketa batzuk izan ditu. Gaur egun, prestakuntza gisa hartzen da edozein ikasketa, ikastaro, tailer... inkesta egin aurreko lau asteetan egin bada, prestakuntza arautua, ez-arautua edo informala izan den aintzat hartu gabe. Datuak lau hiruilekoetako urteko batezbestekoari egiten dio erreferentzia.



gainetik daude, eta Nafarroan (% 14,4) eta Euskadin (% 13,8) prestakuntza-jardueretan parte hartzeko % 15eko Europako helburua lortzetik gertu daude.

2018. urtean, Europar Batasunean, 28 herrialdeetarako, prestakuntza-ikastaro edo ikasketa motaren bat egiten ari ziren 25 eta 64 urte arteko biztanleak, batez beste, % 11,1 ziren. 2005etik 2018ra arteko bilakaerari begiratuta, denboran egonkortutako datua dela ikus daiteke, % 10,2 inguruan egonkortutakoa, hain zuzen ere, eta horrek adierazten du 2020an % 15eko helburura iristea ez dela oso probablea. 2018an, EB osatzen duten herrialde guztien artetik 14k % 10 baino ehuneko baxuagoak zituzten. Herrialde batetik bestera dauden aldeak agerikoak dira; izan ere, herrialde batzuek % 3 baino gutxiagoko ehunekoak dituzte, hala nola Errumaniak (% 0,9), Bulgariak (% 2,5) eta Kroaziak (% 2,9). Aldiz, beste herrialde batzuek % 15 nabarmen gainditzen dute, hala nola Suediak (% 29,2), Finlandiak (% 28,5) eta Danimarkak (% 23,5).

Europar Batasuneko 28 herrialdeen artean, Suedia, Finlandia, Herbehereak eta Danimarka dira 2005-2018aldi osoan modu egonkorrean helburua gainditzen duten prestakuntza-jardueretako parte-hartze ehunekoak dituzten lau herrialde bakarrak.

2018an, Europar Batasunaren batez bestekoa: % 11,1, Espainiako batez bestekoa baino 6 hamarren altuagoa zen (% 10,5), eta Euskadiko batez bestekoa baino 1,6 puntu baxuagoa (% 12,7).

Sexuaren aldagaia aztertuz gero, ikus dezakegu 2018an, emakumeen parte-hartzeari dagokionez, ehunekoetan, alde handieneko Europar Batasuneko herrialdeak honako hauek direla: Suedia (13,7 puntu), Danimarka (8,6 puntu), Finlandia (7,7 puntu) eta Estonia (7,0 puntu). Horietan guztietan, beste datu bat ere aintzat hartu behar da: prestakuntza-ehunekoak ere altuenak dira. Europar Batasuneko herrialde gehienetan, ia ez dago alderik sexuaren arabera. Honako hauek dira prestakuntza-jardueretan gizonen parte-hartze ehunekoa emakumeena baino altuagoa den herrialdeak: Alemania, Zipre, Eslovakia eta Errumania, nahiz eta alde horiek ez diren 0,5 puntu baino gehiagokoak.




T6.1 taula eta grafikoa:

Hezkuntza edo prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak².

Urtea	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
2005 b	12,9	10,8	15,0	4,2
2006 b	12,8	11,5	14,2	2,7
2007	13,6	12,5	14,7	2,2
2008	13,7	12,1	15,3	3,2
2009	13,6	11,6	15,6	4,0
2010	13,3	11,5	15,1	3,6
2011	13,2	11,1	15,4	4,3
2012	13,9	11,8	15,9	4,1
2013	13,6	12,7	14,6	1,9
2014 b	11,9	10,7	13,1	2,4
2015	12,9	12,1	13,7	1,6
2016	11,7	10,8	12,7	1,9
2017	13,2	11,6	14,7	3,1
2018	12,7	11,5	13,8	2,3

¹Balio positiboek emakumezkoek prestakuntza jardueretan gizonezkoek baino proportzio handiagoan parte hartzen dutela adierazten dute. (b) Seriearen haustura.



Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko). Urteko batez bestekoak.

² Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.



T6.2 taula:

Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera autonomia erkidegoetan³.

	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Espainia	10,8 b	11,2	11,2	11,2	11,4	10,1 b	9,9	9,4	9,9	10,5
Galizia	10,6 b	10,8	11,0	10,5	10,4	10,0 b	10,1	9,2	9,4	10,4
Asturias	8,9 b	9,1	10,1	9,5	9,9	8,8 b	8,9	8,4	9,0	8,6
Kantabria	9,9 b	8,6	9,0	9,7	10,5	9,2 b	10,7	9,0	10,7	11,6
Euskadi	12,9 b	13,3	13,2	13,9	13,6	11,9 b	12,9	11,7	13,2	12,7
Nafarroa	12,4 b	13,5	13,9	13,3	13,2	11,3 b	12,2	11,8	11,2	12,2
Errioxa	10,6 b	11,4	10,8	11,7	12,7	10,6 b	9,8	9,8	9,8	10,7
Aragoi	11,7 b	12,0	12,9	12,6	12,5	11,1 b	11,2	11,4	12,1	12,1
Madril (Erk.)	12,5 b	11,9	13,1	13,0	13,5	11,8 b	11,1	10,8	11,5	12,1
Gaztela eta Leon	11,8 b	11,3	11,6	11,5	11,7	10,9 b	10,8	9,6	9,8	10,4
Gaztela-Mantxa	8,7 b	10,6	9,9	9,9	10,7	10,5 b	9,6	8,9	9,2	9,1
Extremadura	9,7 b	10,3	11,3	10,4	10,2	9,2 b	9,5	9,1	9,3	10,2
Katalunia	10,4 b	10,3	9,4	9,0	9,5	8,3 b	7,6	7,4	7,7	8,8
Valentziako Erk.	10,7 b	12,1	12,0	13,1	13,4	11,7 b	11,4	10,8	11,6	12,5
Balear Uharteak	9,6 b	10,3	10,6	10,6	10,2	8,3 b	9,3	8,7	8,6	10,1
Andaluzia	9,7 b	10,5	10,3	10,3	10,1	9,1 b	9,2	8,7	8,6	9,0
Murtzia	8,9 b	11,0	11,0	11,1	11,9	10,8 b	9,9	10,1	11,5	12,2
Ceuta	13,3 b	12,7	13,1	12,5	10,6 u	8,2 bu	11,5	10,1 u	9,7 u	9,2 u
Melilla	13,2 bu	11,9 u	15,8	10,1 u	6,3 u	9,1 bu	9,7 u	7,4 u	12,2	14,3
Kanariak	11,9 b	12,2	11,2	11,3	11,6	9,7 b	8,9	8,4	9,2	10,0

(b) Seriearen haustura. (u) Fidagarritasun urriko datuak.


Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko). Urteko batez bestekoak.

³³ Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.



T6.2 grafikoa:

Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa autonomia erkidegoetan. 2010 eta 2018 urteak.



Handienetik txikienera ordenatua, "2018. urtea" erreferentziatzat harturik.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko). Urteko batez bestekoak.




T6.3. taula eta grafikoa:

Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa autonomia erkidegoetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2018 urtea.

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
Espainia	10,5	9,5	11,5	2,0
Galizia	10,4	9,4	11,5	2,1
Asturias	8,6	7,9	9,2	1,3
Kantabria	11,6	9,9	13,2	3,3
Euskadi	12,7	11,5	13,8	2,3
Nafarroa	12,2	10,1	14,4	4,3
Errioxa	10,7	8,7	12,7	4,0
Aragoi	12,1	10,7	13,5	2,8
Madril (Erk.)	12,1	10,9	13,1	2,2
Gaztela eta Leon	10,4	8,5	12,3	3,8
Gaztela-Mantxa	9,1	8,4	9,8	1,4
Extremadura	10,2	8,3	12,1	3,8
Katalunia	8,8	8,0	9,7	1,7
Valentziako Erk.	12,5	11,9	13,1	1,2
Balear Uharteak	10,1	8,9	11,3	2,4
Andaluzia	9,0	8,6	9,5	0,9
Murtzia	12,2	11,2	13,2	2,0
Ceuta	9,2 u	8,1 u	10,4 u	2,3
Melilla	14,3	12,4 u	16,4 u	4,0
Kanariak	10,0	8,8	11,3	2,5

¹Balio positiboek emakumezkoek prestakuntza jardueretan gizonezkoek baino proportzio handiagoan parte hartzen dutela adierazten dute. (u) Fidagarritasun urriko datuak.



Handienetik txikienera "Guztira" irizpidearen arabera ordenatua.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko). Urteko batez bestekoak.



T6.4 taula:

Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera.

	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
EB (28 herrialde)	9,6	9,3	9,1	9,2	10,7 b	10,8	10,7	10,8	10,9	11,1
Belgika	8,3	7,4	7,4	6,9	6,9	7,4	6,9	7,0	8,5 b	8,5
Bulgaria	1,3	1,6	1,6	1,7	2,0	2,1	2,0	2,2	2,3	2,5
Txekiar Errepublika	5,6	7,8	11,6 b	11,1	10,0 b	9,6	8,5	8,8	9,8	8,5
Danimarka	27,4	32,6	32,3	31,6	31,4	31,9	31,3	27,7 b	26,8 b	23,5
Alemania	7,7 b	7,8 b	7,9	7,9	7,9	8,0	8,1	8,5	8,4	8,2
Estonia	6,0	11,0	11,9	12,8	12,6	11,6	12,4	15,7	17,2	19,7
Irlanda	7,4	7,1	7,2	7,4	7,5	6,8	6,3	6,2	8,9 b	12,5
Grezia	1,9	3,3	2,8	3,3	3,2	3,2	3,3	4,0	4,5	4,5
Espainia	10,8 b	11,2	11,2	11,2	11,4	10,1 b	9,9	9,4	9,9	10,5
Euskadi	12,9 b	13,3	13,2	13,9	13,6	11,9 b	12,9	11,7	13,2	12,7
Frantzia	5,9	5,0	5,5	5,7	17,8 b	18,4 b	18,6	18,8	18,7	18,6
Kroazia	2,1 b	3,0	3,1	3,3	3,1	2,8	3,1	3,0	2,3	2,9
Italia	5,8	6,2	5,7	6,6	6,2	8,1	7,3	8,3	7,9	8,1
Zipre	5,9	8,1	7,8	7,7	7,2	7,1	7,5	6,9	6,9	6,7
Letonia	7,8	5,4	5,4	7,2	6,8	5,6	5,7	7,3	7,5	6,7
Lituania	6,1	4,4	6,0	5,4	5,9	5,1	5,8	6,0	5,9	6,6
Luxemburg	8,5	13,5	13,9	14,2	14,6	14,5	18,0 b	16,8	17,2	18,0
Hungaria	3,9	3,0	3,0	2,9	3,2	3,3	7,1 b	6,3	6,2	6,0
Malta	5,2 b	6,2	6,6	7,2	7,7	7,7	7,4	7,8	10,6 b	10,8
Herbehere	15,9	17,0 b	17,1 b	16,9	17,9 b	18,3	18,9	18,8	19,1	19,1
Austria	12,9	13,8	13,5	14,2	14,1	14,3	14,4	14,9	15,8	15,1
Polonia	4,9	5,2 b	4,4	4,5	4,3 b	4,0	3,5	3,7	4,0	5,7 b
Portugal	4,1	5,7	11,5 b	10,5	9,7	9,6	9,7	9,6	9,8	10,3
Errumania	1,6	1,4 b	1,6	1,4	2,0	1,5	1,3	1,2	1,1	0,9
Eslovenia	15,3	16,4	16,0	13,8	12,5	12,1	11,9	11,6	12,0	11,4
Eslovakia	4,6	3,1	4,1 b	3,2	3,1	3,1	3,1	2,9	3,4	4,0
Finlandia	22,5	23,0	23,8	24,5	24,9	25,1	25,4	26,4	27,4	28,5
Suedia	17,4	24,7	25,3	27,0	28,4	29,2	29,4	29,6	30,4	29,2
Erresuma Batua	27,6 u	20,1	16,3	16,3	16,6	16,3	15,7	14,4	14,3	14,6


(b) Seriearen haustura, (u) Fidagarritasun urriko datuak.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko). Urteko batez bestekoak.



T6.4: grafikoa:

Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. 2010. eta 2018. urteak.



Handienetik txikienera "2018.urtea" irizpidearen arabera ordenatua.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko). Urteko batez bestekoak.



T6.5 taula:

Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. 2018. urtea.

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
EB (28 herrialde)	11,1	10,1	12,1	2,0
Belgika	8,5	8,1	9,0	0,9
Bulgaria	2,5	2,4	2,6	0,2
Txekiar Errepublika	8,5	8,3	8,7	0,4
Danimarka	23,5	19,2	27,8	8,6
Alemania	8,2	8,5	8,0	-0,5
Estonia	19,7	16,2	23,2	7,0
Irlanda	12,5	10,3	14,6	4,3
Grezia	4,5	4,5	4,5	0,0
Espainia	10,5	9,5	11,5	2,0
Euskadi	12,7	11,5	13,8	2,3
Frantzia	18,6	15,9	21,0	5,1
Kroazia	2,9	2,4	3,4	1,0
Italia	8,1	7,6	8,6	1,0
Zipre	6,7	6,8	6,6	-0,2
Letonia	6,7	4,8	8,4	3,6
Lituania	6,6	4,9	8,3	3,4
Luxemburg	18,0	17,6	18,4	0,8
Hungaria	6,0	5,6	6,4	0,8
Malta	10,8	9,3	12,4	3,1
Herbehere	19,1	18,3	20,0	1,7
Austria	15,1	13,7	16,5	2,8
Polonia	5,7	5,1	6,3	1,2
Portugal	10,3	9,8	10,8	1,0
Errumania	0,9	1,0	0,9	-0,1
Eslovenia	11,4	9,4	13,5	4,1
Eslovakia	4,0	4,2	3,8	-0,4
Finlandia	28,5	24,7	32,4	7,7
Suedia	29,2	22,4	36,1	13,7
Erresuma Batua	14,6	12,9	16,2	3,3


¹Balio positiboek emakumezkoek prestakuntza jardueretan gizonezkoek baino proportzio handiagoan parte hartzen dutela adierazten dute.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko). Urteko batez bestekoak.



T6.5 grafikoa:

Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. 2018. urtea.



Handienetik txikienera "Guztira" irizpidearen arabera ordenatua.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko). Urteko batez bestekoak.